

# iruner

193. zenbakia. 2011ko apirila



Bidasoa Itzulia:  
maiatzaren 4tik  
7ra, primerako  
ikuskitza

UDAL POLITIKA:  
Elkarrizketa PSE-  
EEko Jose Antonio  
Santano alkateari  
eta Aralarko  
Silbestre Balerdi  
zinegotziari



Transexual irundar  
baten istorioa:

“Orain  
zoriontsu  
izaten hasi  
naiz”

PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

# ATE IREKIAK

## Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE MAIATZAK 7**

larunbata, 10:30

## Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI MAIATZAK 21** larunbata, 11:00

**IRUN MAIATZAK 28** larunbata, 11:00

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORIATZA APIRILAK 14**

osteguna, 18:00

ARETO  
NAGUSIAN

*Etorri aurretik  
izena eman!*



902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77  
[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)  
**Argitaratzailea:** TB S.L.  
**Erredakzioa**  
**maketazioa:** Ana Grijalba.  
**Kolaboratzailea:**

Mikel Asurmendi  
**Zuzentzailea:**  
Xabier Kerexeta.  
**Inprimategia:** Antza  
**Tirada:** 3.500 ale  
**Lege gordailua:** SS-230-94  
ISSN: 1134-0606

#### 4.- *Lapikoan*

- Jose Antonio Santano, Irungo alkatea eta PSE-EEko zerrendaburua.
- Sibestre Balerdi, zinegotzia eta Aralarreko zerrendaburua.

#### 12.- *Kirolak.*

- Txirrindularitza: Bidasoako Itzulia.
- Irun Iruten elkarteak eskola kiroleko hezitzaile ikastaroa antolatu du.

#### 15.- *Gai nagusia.*

Irungo transexual baten istorioa.

#### 19- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

#### 22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa* Zein baliotan hazi? (II)

#### 24.- *Eleak iruten.* Gogoratu nahi d(it)ut

#### 25.- *Lerroz lerro.* Mikel Hernandez Abaitua *Azukre xehea, gatz larria*

#### 26.- *Kultur Agenda*

#### 28.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak*

## OLAIZOLA

## Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17  
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: [inmolaizola@euskalnet.net](mailto:inmolaizola@euskalnet.net)

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea eta PSE-EEko zerrendaburua

“Oposizioarekin harreman ona dugu: udalbatzak gaien %80 aho batez onartzen ditu”

Demokraziako Irungo laugarren alkateak bi agintealdi eman ditu hiriko lema gobernatzeko. Maiatzean izango duen hirugarren aukerari begira oso itxaropentsu dago.



- PSE-EEren zerrenda duela 4 urtekoaren aldean ez da ia aldatu. Hain gustura al zaude lan-talde honekin?

Bai, gustura nago. Hautagai gehienekin lau urte eman ditut, eta beste batzuekin, zortzi. Tartean jende gaztea dago, beraz, aurretik ibilbide luzea

dute oraindik. Halere, agintealdi bakoitzean aldaketa txikiak egin behar direla uste dut. Berrikuntzarik handiena 5. lekuan independente gisa doan Pedro Alegre da. Irunekin lotura handia du, teknologiaren alorrean aintzatetsia da eta, sozialki, pertsona nabarmena. Hiru ezaugarri horiek azpimarratuko nituzke.

- Inkesta orokorrek Alderdi Sozialistak boto asko galduko dituela aurreratu dute. Zer gertatuko da Irunen?

Esperientziak frogatu du udal hauteskundeak ezberdinak direla. Esaterako, 2001eko EAEkoetan PSE-EEK emaitza oso txarrak izan zituen; baina handik 14 hilabetera Irunen irabazi genuen, alde handiz, gainera. Irungo hautesleekiko konplizitatean konfiantza daukat. Oso animatua nago.

- Aurtengo aurrekontuak PSE-EEren babesarekin eta ez beste inorenarekin onartu ziren. Oposizioa kexu da udal gobernuak kontuan hartzen ez duelako.

Kritika horrek ez du errealtatea islatzen: harremana ona izan da. Oro har, adostasuna nagusitu da. Pentsa udalbatzaren osoko bilkuretara eramaten diren gaien % 80 aho batez onartzen direla. Hirigintza kontu potoloetan ere babes handia lortu dugu; horren lekuko, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Aurrekontuei dagokienez, aurten izan ezik, beste alderdiren baten onespena izan dute.

- San Juango proiektua agintealdiko inbertsio nagusia izan da. Jakin bazenu krisia zetorrela atzeratuko zenuen?

Lan horiek beharrezkoak ziren. Alde batetik, garrantzizkoa zelako duela 70 urte baino gehiago hondatuta geratu zen inguru sinbolikoa berregituratzea; bestetik, proiektua hautatzeko prozesuan hiritarrek parte hartu zutelako. Irungo zentroa bizkortuko duelakoan nago. Lan horiek bertan behera utzi izan bagenu ere, aurrekontu orokorrak murriztu beharko genituen; esaterako, Foru Aldunditik datorkigun diru kopurua krisiaz geroztik txikiagoa delako. Kinka ekonomikoaren ondorioz, gainera, obra merkeago izango zaigu.

- Langabezia hiritarren kezkarik behinena da. Irungo tasa Gipuzkoakoaren eta



Euskadikoaren gainetik dago. Zer neurri proposatzen ditu Irungo PSE-EEK?

1993an Aduana agentziek jasan zuten lan eskararen murrizketa itzelaren ostean, Irungo langabezia tasak batezbesteko orokorrakoagoak gaitzen ditu. Langabezia handia den arren, bada faktore positibo bat: duela urte batzuk baino 10.000 pertsona gehiago ari direla lanean. Zergatik? Jarduera ekonomikoetarako lurra eskaini dugulako. Horren adibide argiak dira: Arasoko industrialdea (% 60 okupatua), Arretxe-Ugaldeko eraikin berria, 2 enpresa-zentro berri, K-Biziak laguntza-programa... Oso kontuan hartzeak dira Udalak dauzkan mugak.

- Estualdi ekonomikoan dauden pertsona gehiagori erantzun behar izan zaio. Zer egin du Udalak?

Ahalegin berezia egin dugu. Bi ekimen nabarmenduko nituzke: Harrera Unitatea, zeina agintealdi honetan sortu baitugu, erantzuna azkartze aldera, eta akordioa Lanbiderekin. Honi esker, Diru-Sarrera Bermea aitortua duten pertsonen parte baten kudeaketa ez dago jada gure esku; beraz, lan eskerga arintzea ekarri digu.

- San Migel-Anakako Babes Ofizialeko etxebizitza operazioari buruz duela 20 bat urte hitz egiten hasi zen. Berma dezakezu oztopo gehiago ez dela sortuko?

Bai. Aireportuak sortu zituen oztopoak gainditu dira eta finantzazioa lotuta dago, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu dugun hitzarmenak operazioaren %50 ahalbidetuko baitu.

- Mugikortasunarena konpondu gabeko arazoa da. Zer irtenbide proposatzen du PSE-EEK?

Erronka da lantokietara joan-etorriak egiteko garraio publikoa erabiltzea. Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen irtenbideak arazoa konponduko luke: Euskotren Arasaraino eta Irungo erdialderaino eramanez eta maiztasunak handituz. Gainera, Hondarribira eta Hendaiara beste linea bana eraikiko lirateke. Tranbiaren aukera ez da ona, batez ere lur azalean espazio asko behar duelako.

- Trenbidearen espazioa berrantolatze-ko erakundearteko protokoloa sinatzea lortu duzu. Krisi inmobiliarioak noraino oztopa dezake proiektua?

Proiektua ez da etziko. Ni oso lasai nago azterketa ekonomiko ona egin dugulako, kinka zail bati ongi egokitzen zaiona.

Protokoloan bi diru-iturri jasotzen dira: publikoa eta hiri-aprobetxamenduetatik bilduko duguna. Zenbat eta gehiago eskuratu hirigintza operaziotik gero eta diru publiko gutxiago jarri beharko da. Dena den, geltoki intermodalaren eraikuntza ez da ekonomiaren gorabeheren esku geratuko.

- Zer egingo duzue euskararen alde?

Euskararen erabilera maila garrantzitsua lortu dugu. Orain arte euskararen erabilera-politikan ahalik eta adostasun handiena erdiesteko lan egin dugu, aurrera egiteko oinarritzak deritzogulako; eta ez zaigu gaizki joan. Biziberritzeko Plana eta Erabilera Plana onartu ditugu berriki eta erabilera bultzatzen jarraituko dugu, bai Udal administrazioan bai gizartean.



- Kulturaren eta hezkuntzaren alde egin duzu. Kulturak turistak erakarri behar ditu. Helburu hori dute, adibidez, Hirugurutzetako labeek eta Menchu Gal eraskusgelak.

Hezkuntza, unibertsitatearen alde egin dugu. Kulturak turistak erakarri behar ditu. Helburu hori dute, adibidez, Hirugurutzetako labeek eta Menchu Gal eraskusgelak.

**- Nolako hiria izango da Irun etorkizuneari?** Bizirik dagoen hiria, ekinbideak dituen eta aktibitate handikoa.

**- Zein izan da azken lau urteotako konturik gogorrena?** Krisiaren aurpegiak ikustea, alegia, gaizki pasatzen ari diren pertsonak.

**- Eta atseginena?** Konpondutako arazo txiki bakoitza eta trenbidearen espazioaren inguruko protokoloa sinatzea, etorkizunaren bidea markatzen duelako.

**- Zeren inguruan dituzu zalantzak?** Kontu inportanteen inguruan ez dut zalantzarik izan, asko entzun dudalako.

**- Nola hartzen duzu ezezko bat?** Kezkatzen naiz. Ezezko batek esan nahi du ez dudala konbentzitu. Ezezko bat *baliteke* baten atari gisa hartzen dut.

# irunero aldizkaria non eskura daiteke?

## **ANAKA**

ANAKAKO KASINOA  
KUTXA  
BURDINDEGIA (Kutxaren  
aldamenean)  
ANAKAKO AUZO ELKARTEA  
BIDASOAKO OSPITALEA

## **BELASKOENEA:**

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)  
BELASKOENeko AUZO  
ELKARTEA

## **ARBES eta PALMERA-MON- TERO**

VICTORIA TABERNA  
(Altzukaitz)  
LA AGRICOLA  
PALMERAko HAINBAT  
KAFETEGI-TABERNATAN

## **BEHOBIA eta ARTIA**

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-  
LA  
TRINKETE TABERNA (M<sup>a</sup>  
Juncal Labandibar kalea)  
AZKEN PORTU KIROLDEGIA  
KUTTUNA HAUR ESKOLA  
(Artiako Caro Baroja plaza)

## **ERDIALDEA**

HERRI JAKINTZA (Nafarroa  
hiribidea)  
BRASIL gozo-denda  
ELKAR liburu-denda  
OSKARBI Liburudenda  
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)  
KUTXA (Kolon)  
JUBILATUEN ETXEA (Luis  
Mariano)  
VIRGINIA kafetegia  
SIRIMIRI taberna  
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)  
KIOSKO 33 (Argentinari  
Errepublikari)  
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)  
GAZTE INFORMAZIO BULE-  
GOA (Foruen karrika)  
EUSKARA Arloa (Foruen karri-  
ka)  
ACUBI (Foruen karrika)  
IZOKINAREN KOFRADIA  
(Kale Nagusia)  
ARANO taberna  
MANOLO taberna  
SARGIA taberna  
AEK Euskaltegia  
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA  
MENDIBILGO MUSIKA  
KONTSERBATORIOA  
ARTALEKU KIROLDEGIA

## **DUNBOA**

TOMA PAN Y MOJA (S.  
Pedro)  
OSASUN ZENTROA  
KUTXA (Nafarroa hiribidea)  
ERKA (Salvador Etxeandia)  
ALDABE paper-denda

## **LAPITZE**

ANBULATORIOA  
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-  
koa.  
OGIBERRI (Serapio Mujika)  
EUSKADIKO KUTXA (S.  
Mujika)

## **MEAKA**

MEAKAKO Bizilagunen  
Elkartea  
ERROTAZAR  
OLA Sagardotegia

## **OLABERRIA**

ESTEBENEA taberna  
LABEKO ETXEA jatetxea

## **ALDE ZAHARRA**

UDAL EUSKALTEGIA  
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA  
(Larretxipi)  
EKT (Larretxipi, 12)  
KURPIL KIROLAK (Peña k.)  
HAZIA taberna (Peña kalea)  
ESKINA taberna  
EUSKADIKO KUTXA  
(Urdanibia)  
KULTURA Arloa  
(Ospitale Zaharra)

## **ANTZARAN**

NEKANE paper-denda  
Lekaenea

## **SAN MIGEL**

KOLON burdindegia  
(Hondarribia kalea)  
KUTXA (Zubiaurre)  
EUSKADIKO KUTXA  
(Zubiaurre)  
SAN MIGELEko AUZO  
ELKARTEA (Luis de Uranzu,  
24)  
ATREZZO (Geltoki kalea)

## **SANTIAGO**

AGUIRRE okindegia (Junkal)  
CANON (Santiago k.)  
SANTIAGO AUZO ELKARTEA  
BIKOTE (Erromes plaza)

## **URDANIBIA**

TANDEM kafetegia

## **KATEA**

KATEKO AUZO ELKARTEA

## **LARREAUNDI**

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)  
AUZO ELKARTEA  
(Iñigo Loiolako)  
LARRARTE Harategia  
(Eguzkitzaldea, 17).

Silbestre Balerdi, Aralarreko zinegotzia eta zerrendaburua

# “Irungo langileak lehentasun dituen Udala nahi dugu”



Txikitatik naturak erakarrira, mugimendu ekologistari lotu zitzaion gaztetan. Aralar sortu orduko, kide egin zen, eta azken hila-beteotan alderdi honen zinegotzi lanetan ibili da. Aralarreko zerrendaburuak gogoz heldu dio aurrean daukan erronkari.

- Zerrendaburu berria zara. Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

2010eko abenduan, nire burkide Aritz Lekuonaren ordeztartu nintzen, lan kontuak zirela eta zinegotzi postua utzi behar izan zuelako. Orain, Irungo Aralarren komiteak berretsi egin nau, eta datozen hauteskundeetarako zerrendaburu izendatu. Azken lau urteotan Aralarren zinegotziak atzetik lan garrantzitsua egin duen taldea izan du, eta hori nabarmendu nahi nuke, horixe baita Aralarren lan egiteko modua: taldelana. Aurrerantzean ere horrela jarraituko dugu.

- Azken agintealdian Aralarrek EBrekin koalizioan lan egin du, baina tirabirak sortu dira. Orain bakoitzak bere zerrenda aurkeztuko du. Zinegotzi bana besterik ez duten alderdientzat horrek badu arriskurik. Zer nolako aukerak ditu Aralarrek? Aralarrek leialtasunez jardun



du koalizioaren barruan, baina ez dugu leialtasun bera sumatu gurekiko. Ezkerrekoak eta abertzaleak gara eta penaz hartu dugu Ezker Batuak, maila horretan, gure helburuak aintzatetsi ez izana. Beren jarreretan atzeraka egin dute, eta horrek koalizio bezala lortu genituen adostasunak desitxuratu ditu. Orain gure proiektu politiko ezkertiar eta abertzalea, zibil eta zabala, defendatzeko hautua egin dugu. Egunerokoa eragiteko gaitasuna duen proiektua, giza eskubide guztiak babesten dituena, bakea eta berdintasuna helburu dituena eta krisia gainditzeko politika sozialak garatzea beharrezko ikusten duena. Hori dela eta, besteak beste, hauteskunde hauetan bakarrik joatea erabaki dugu, eta hauteskunde hauetan aurrekoetan jasotako babes berreseta eta gure tokia sendotzea espero dugu.

- Irungo udal gobernua-  
ren azken 4 urteotako  
gestioaren balantzea.

Aralarrentzat agintealdi hau PPreten eta PSE-EEren arteko akordioarena izan da. PSE-EEK gutxiengoan zegoen gobernuari eutsi ahal izan dio punturik garrantzitsuenetan –aurrekontuak, plan orokorra...– popularren babes izan duelako, eta, Aralarren harri-durarako, EAE-ANVrena ere bai.

- Zein izango da



Aralarren lan ildoak?

Irungo langileak lehentasun dituen Udala nahi dugu. Zentzu horretan, funtsezkoa da Udalak bere esku dituen tresna guztiak erabiltzea langileen prekaritatearekin amaitzeko eta gehien behar dutenei estaldura soziala bermatzeko. Era berean, gastuekin zuhur jokatu behar da, eta kudeaketan, eraginkor. Ingurumena zaintzearen aldeko apustu sendoa egin behar du, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde tinko jardun behar du. Euskararen aldeko neurriak ezinbestekoak direla gogorazi nahi dugu, eta gure hizkuntza sustatzeko giza baliabideak eta bestelako bitartekoak jartztea.

- Zein dira programako  
proposamen  
garrantzitsuenak?

Irunek bere etorkizunari buruzko akordio zabala behar du. Horretarako, Plan

Orokorrari buruzko adostasuna erdiestea da lehentasuna, gaur egun ez dagoena.

Berriki proposatu dugu ekonomiarentzat eta enpleguarentzat onurak ekarriko lituzkeen plan energetikoa garatzea. Horrez gain, iruditzen zaigu babes ofizialeko etxebizitzek alokairuzkoak izan behar dutela, eta industriari bideratutako lurzoru izatea funtsezkoa dela. Ez dugu nahi zerbitzuetan huts-hutsean oinarritutako hiria. Hezkuntza behar-beharrezkoa da, gazte zein helduentzat, eta zentzu guztietan.

Udaletxeko ateak parez-pare ireki nahi dizkiegu herritarrei, erabaki garrantzitsuetan parte har dezaten, bai eta erabaki txikitian ere parte izan daitezten. Laburbilduz, Aralarrek Irunen politika egiteko modua aldatzearen aldeko hautua egingo du. Irun, Euskal Herriko eta Europako parte den heinean, egokiago ordezkaturako duen gobernu baten alde.

# Pintxoaren Bidea abian da Muganen eskutik

MUGAN Irungo Merkataritza Elkartek antolatu duen Pintxoaren Bideak maiatzaren 29ra arte hiriko 27 ostalaritza establezimendutan euro baten truke pintxo bat dastatzeko aukera eskaintzen du. Merkataritza eta gastronomia uztartuz sektorea suspertzea xede duen ekimen arrakastasua da. Muganeko dendetan erosketa egiteagatik bezeroek bonopintxoak eskuratuko dituzte oparitan. Parte hartzen duten tabernetan horietako bakoitza aurkeztuz, euro baten truke pintxo bat dastatzea izango da.

Bosgarren edizio honen berrikuntza nagusia da Muganek sare sozialen alde egin duela. “Irungo gastronomia sare sozialen testuinguruan kokatu nahi dugu, parte-hartzea bultzatzearen”, azaldu zuen Tomas Maeztu elkarteko



Irungo alkatea, Maite Cruzado zinegotzia eta Tomas Maeztu Muganeko kudeatzailea Merkairungo ordezkariekin eta zenbait sukaldarirekin.

kudeatzaileak. Pintxoaren argazkiak, bideoak, errezetak eta sukaldariak hainbat formatu digitaletan kontsultatu ahal izango dira.

Pintxoaren V. Bidea Merkairunen aurkeztu zen. Zabaldu zenetik 10. urte

betetzen dituen honetan Muganek omendu nahi izan du, Merkataritza Suspertzeko Irungo lehenengo Planaren lokomotorea izan zena, eta bertako produktu freskoen kontsumoa bultzatzeko konpromisoa berretsi.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,  
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,  
KAMISĒTAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

# Adaxka eta Kemeneko dantzari gazteek euskal folkloreakaren lagina erakutsi zuten

Adaxka eta Kemen dantza talde-etako haur eta gaztetxoek ikas-turtean zehar egindako lan opa-roaren lagina erakutsi zuten joan den apirilaren 9an Amaia KZn burutu zuten saioan. Berrehun ikasle inguruk Euskal Herriko folkloreakaren lagina ekarri zuten agertokira, bertaratutako arte-an emozioa zabalduz.

Agurrarekin hasi zen egitaraua hainbat bazterretako dantzek osatua izan zen: Berako eta Korteseko makil-dantzak, Lapurdiko polkak, zahagi-dantza, Imotzeko esku-dantza, uztai-dantzak, eta abar luzea. Dantzariak txalo zaparrada jason zuten egindako lan txukunaren sari.



Adaxkako neska talde bat Amaiaiko saioan.

## II. Errepublikaren 80. urteurrena ospatu zen

Nicolas Guerendiain Irungo Errepublikarren Elkarteak, apirilaren 14an bete zen II. Errepublikaren 80. urteurrena kari, ekitaldi-egitaraua antolatu zuen. Horietako nagusia apirilaren 10ean burutu zena izan zen. Antzina Errepublikar Zentroa zegoen lekutik (Zabaltza plaza) Luis Marianoraino Errepublikar Martxa egin zen. Adierazpen baten irakurketaren ondoren, bandera hori-gorri-morea igo zuen Luis Perea errepublikazale errepresaliatu eta Mauthausengo kontzentrazio-esparruan preso egonda-koak.



Luis Perea, errepublikazale omendua.





Bidasoa Itzulia, San Juan plazara sartzen.

## Zailtasun ekonomikoak

Zailtasun ekonomikoak. Horixe da, Antton Mendia Bidasoa Itzuliaren antolaketa taldeko buruaren esanetan, aurtengo edizioaren prestaketaren ezaugarri nagusia. "Pentsa: Espainian antolatzen ziren amateur mailako 30 probetatik 20 besterik ez dira geratzen. Krisiak bete-betean jo arren, 18 talde ekarriko ditugu, batezbestekoaren gaitetik. Datorren urtean zailtasun handiagoak izango ditugu, baina ziurta dezaket Itzulia ez dela desagertuko".

## 2010eko sailkapena



1go etapa eta sailkapen orokorra: Sergey Shilov (Errusia)



2. eta 3. etapak: Ramunas Navardauskas (Lituania)



4. etapa: Jordi Simon Casulleras (Espainia)

# *Irun Irutenek eskola kiroleko hezitzaile ikastaroa antolatu du*

Irunen Eskola Kirola programaren kudeaketaz ardura-tzen den Irun Iruten euskara elkarteak *Eskola kiroleko hezitzaile* ikastaroa antolatu du.

Euskara hutsezko ikastaroa izango da. Parte-hartzaileak euskarazko kirol hiztegi eta edukietan trebatzeaz gain, kirol taldeetan gure hizkuntza sustatzeko metodologia egoki bat erabiltzen lagunduko zaie.

Halaber, helburu nagusien artean, eskola kirolean aritu nahi duten gazteak kirol eta hezkuntza arloetan behar bezala prestatzea ere bada. “Eskola kirolak izaera berezi bat baduela irakatsi nahi diegu, non edozein errendimendu helburutatik urrun,



jolas eta elkar bizitzaren bidez haur guztien parte-hartzea bultzatzen dugun, kirol maila kontuan hartu gabe” azaldu zuten antolatzailleak.

## Izen-emateak

Epea: Apirilak 20.

Ikastaroa noiz: Maiatzaren 2tik ekainaren 6ra (35 ordu).

Izen-ematea:

[ekhiiruniruten@gmail.com](mailto:ekhiiruniruten@gmail.com)

**REAL UNIONEK KLUBEKO 50 BAZKIDE BETERANOENAK** omendu zituen joan den apirilaren 10ean Mertxe jatetxean egin zen bazkarian. Ekimen horren bidez, Klubak eskertu nahi izan zien Real Unionen alde urtetan mantendu duten konpromiso eta leialtasuna. Otorduaz gozatzeko, 29 bazkide bildu ziren presidentarekin eta administrazio kontseiluko zenbait kideekin.



Arg: I. Larrañaga

# Carlos vs Sonia: transexual irundar baten istorio gordina



higer bidea, 6-  
20280  
hondarribia.  
gipuzkoa  
t(34) 943 64 27 12

[arrokaberri@arrokaberri.com](mailto:arrokaberri@arrokaberri.com)  
[www.arrokaberri.com](http://www.arrokaberri.com)





Bere nortasun agirian gizon baten argazkia agertzen da, Carlos Bañeza izenekoa. Urte amaierarako, ordea, Sonia izena azalduko da, eta, aldamenean, emakume baten irudia. Irundar transexuala da. Hogei urte baino gehiago bere burua onartu ezinik ibili ondoren, duela urtebete urratsik zailena eman zuen. "Zergatik itxaron duzu horrenbeste?", galdegin zion amak. "Orain zoriontsu izaten hasi naiz", dio irribarretsu. Ingurukoek Soniak uste zuten baino harrera hobea egin diote.



## Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.



Hamasei bat urte zituenean zerbait ezberdina gertatzen zitzaiola nabaritzen hasi zen. “Neskak gus-tatzen zitzaizkidan, baina trasbestitzea atsegin nuen. Gaixorik nengoela pentsatzen nuen”.

Neskalagun asko izan zituen, bi gizonekin harre-mana ere bai. Hura ere ez zela bere bidea onartu behar izan zuen. Ezkondu eta bi alaba eduki zituen. “Hainbat urtez torturatuta bizi izan naiz, ezin nuelako nire burua onartu eta jendaurrean naizen bezala agertu. Lagunen, familiaren eta laneko bezeroen bazterketari sekulako beldurra nion. Gainera, gure inguru hurbileko gizarte hau oso itxia da”.

Orain urtebete, indarrak bildu egin zituen Carlosi agur esan eta Soniaren larrupean sartzeko. “Banandu nintzenean Gehitu elkartearekin harre-manetan jarri nintzen. *Orain mendia igotzen hasi zara*, ohartarazi zidaten. Kontuan hartu behar da transexualentzat urratsa ematea zailagoa dela gay edo lesbiana batentzat baino, hauek ez baitute itxura aldatzen”.

#### Ingurukoen primerako erantzuna

Ingurukoen erantzunarekin oso pozik dago Sonia, harrera uste baino hobea izan delako. *Zergatik itxaron duzu horrenbeste?*, izan zen amaren erre-akzio lasaigarria. Amarekin eta ilobekin agertzen den argazkia erakusten du, harro.

Koadrilakoek sexu-identitate arazoan susmorik ere ez zioten hartzen. *Baina, nolatan? Beti izan zara neskatan errazen egiten zuena eta!*, ihardetsi zioten, harri eta zur.

## 8.000ko mendira igotzeko asmoa

Betidanik mendizalea izan da Sonia. Pirinioetako 3.000 metro-ko 172 mendi-tontorretara igo da jada. Udazkenean Nepalera joango da, Mera Peak-en gailur-rrera (6.470 m) heltzeko asmoz. Hurrengo urratsa da 8.000ko bat, Cho Oyu hain zuzen, burutzen duen lehenengo transexuala iza-tea. “Horixe nire ametsa. Dena den, nire bizitzako 8.000koa Sonia bilakatzea izan da”.



**gesAR**  
gestoria ARANA  
corporación de seguros

asesoria aholkularitza  
integral integrala  
ingeniería ingenieritza  
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.  
IRUN

**Tel: 943 666 050**

Fax: 943 618 075

[gestoria.arana@garana.com](mailto:gestoria.arana@garana.com)

---

Kanpora bizitzera  
joatea pentsatu  
bazuen ere,  
jasotako erantzun  
onagatik Irunen  
geratu da

---

Soniak pintura-lan eta dekorazio enpresa bat dauka. Bezeroek onartzean zetzan bere bizitza berriaren zutabe garrantzitsua. “Eta hala izan da. Egia esan, emakumeen artean harre-  
ra are hobea izan da. Orain artekoan ez dut erdeinu hitzik entzun. Pentsa, zahar batek baino gehiagok animoak eta guzti eman dizkit!”.

Gogorrena alaben aurrean emakumetu den aita izatea gertatu zaio. “Txikiak dira oraindik. Prozesu honek denbora eskatzen du. Aita deitzen naute eta haien aurrean aita bezala agertu behar dut, ez nautelako emakume gisa ikusten”.

Emakumetzeko erabakia hartzerakoan Irundik kanpo bizitzera pentsatu bazuen ere, jendearen erantzun positiboak ideia hori bertan behera uztera bultzatu du.

#### Tratamendua

Duela bederatzita hilabete emakume-hormo-



nak hartzeari ekin zion. Legeak ezartzen du izena eta sexua ofizialki aldatzeko izapideak abia daitezkeela hormonatzen hasi eta handik 2 urtera. Gurutzetako ospitaleko unitate berezi bat da halako kasuen diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena egiteko arduraduna. Iaztik, Osakidetzak kanpoko sexu-organoak aldatzeko kirurgia bere gain hartzen du. Alabaina, Soniak nahiago du ebakuntza Thailandian egitea, bertan “munduko punta-puntako espezialistak direlako”. Genitalen ebakuntzarako 25.000 euro beharko ditu; 8.000, laser depilaziorako, eta 10.000, emakume itxurako hazpegien kirurgia egiteko. “Orain zoriontsu izaten hasi naiz”.



Bernat Etxepare, 6  
HONDARRIBIA  
Tel: 943 64 24 31  
[www.donepedro.com](http://www.donepedro.com)

# Mondragon Unibertsitatea handitzeko lanak amaitu dituzte

Irungo Mondragon Unibertsitatearen instalazioak handitzeko lanak joan den martxoan inauguratu zituzten. Ducoureau jauregiaren aldamenean egin duten eraikin berriak 600 m<sup>2</sup> ditu. 800.000 euroko kostua izan du, E Planaren bidez finantzatu dena. Zabaltze lanek bi helburu erdiestea ahalbidetu dute: ikasle kopurua nahiz hezkuntza eskaintza handitzea. Gaur egun Bidasoako campusak 270 ikasle ditu.

Inaugurazio ekitaldian Iosu Zabala zentroko errektoreak, Pedro Luis Rio Oyarbide Gobernuaren Gipuzkoako azpiordezkariak, Jose Antonio Santano Irungo alkateak eta Miguel Angel Paez Udaleko Obra ordezkariak parte hartu zuten.



Mondragon Unibertsitateak 270 ikasle ditu.

## Parke berria Artian



Artia auzoko Belartzako hegian parke berria burutu du Irungo Udalak, Lanen lehenengo fasea da oraingo hau, auzoko bizilagunek tokia aprobetxatu eta goza dezaten. Etorkizunean, IRUNVIK garatuko lukeen proiektu zabalago baten bitartez osa liteke. Izan ere, proiektuak lur azpiko aparkaleku bat eraikitzeko aukera ere jasotzen du.

Aurkezpen ekitaldian Jose Antonio Santanok azpimarratu zuen auzoan horrelako parke bat egokitzearen garrantzia. "Kontuan eduki behar da aisialdirako zona berri eta zabala dela, bizilagun kopuruaren aldetik gehienetako bat duen Irungo auzo bat delako eta familia gazte ugari bizi delako bertan."

Obraren kostua 540.000 eurokoa da eta Eusko Jaurlaritzak %75 ordaindu du.

# Errromesen aterpetxea, berriro irekita

Errromesen Irungo aterpetxeak (Lucas de Berroa kalea, 18) joan den apirilaren 1ean atek zabaldu zituen, eta datorren irailaren 30ean itxiko ditu. Bestalde, Santiago Bidearen inguruko informazio gunea ere zabalik dago (Foruen karrika, 2), asteazkenetan eta ostiraletan 19:00etatik 20:30era bitartean. Bai aterpetxea bai informazio zerbitzua Santiago Bide Lagunen Txingudiko ordezkariak kudeatzen ditu.

Iaz 3.624 errromesek ostatu hartu zuten aterpetxean. Txingudiko ordezkariak arduradunak 2011n kopuru hori gaindituko delakoan daude, iaz Konpostelar Urte Santua izanak ekarri zuen masifikazioa saihestu nahi zutenek aurten bidea egiteko erabakia har dezaketelako.



Irungo aterpetxea Lucas de Berroa kalean dago.

## Boliviaren aldeko kontzertua Ficoban

Datorren apirilaren 30ean, Ficoban, ongintza kontzertua egingo da, Irungo Taupadak GKEak bultzatuta. Biltzen den diru guztia Boliviako oihanean dagoen San Ignacio de Moxos herriko musika-eskolarako izango da, jada Taupadaken laguntza jasotzen duena.

Musikari profesionalen osatutako orkestrak eskainiko du kontzertua, musu-truk, eskaini ere. Halaber, Almudena Ortega donotiar sopranoak abestuko du.

Boliviako konpositoreen musika ere izango duen errepertorioa interpretatuko dute.

Ekitaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da Ficobako auditorioan.



**HARRERA FRANTZIAR IKASLE TALDE BATI.** Irungo alkateak eta zenbait zinegotzik Agen hiriko ikasle talde bati harrera egin zioten apirilaren 11n. Lycée Bernard Palissy-ko 20 bat gaztek Irunen astebete igaro dute Pio Baroja institutuarekin gauzatu den hizkuntza-elkartruke programa bati esker. Gazteek institutuan frantsesa eta batxilergo hiru eletan ikas dezaten bultzatzeko proiektu honetan, 15 ikasle irundarrek parte hartu dute.

# Udako jarduera eskaintza

UDALEKUAK				
Ekintza	Adina	Datak	Lekua	Epea eta informazioa
Udalekuak euskaraz	1995etik 2002ra bitartean jarioak	Abuztua	- Zuhatza irla - Gorliz - Zarautz	Apirilean 943 63 56 02 <a href="http://www.iruiruten.com">www.iruiruten.com</a>
Bertso Udalekuak	9-18	Uztaila, abuztua eta iraila	Hainbat tokitan	943 69 41 29 Epea: Maiatzak 10
UDALEKU IREKIAK				
Uda Solas (Dantza, ekintzak...)	3-6 7-10	Uztaila-Abuztua 8:45-13:15	Irun	<a href="http://www.skolamusic.com">www.skolamusic.com</a> 943 63 63 14
Hondartzako kluba Ekintza anitz	3-14	Uztaila/Abuztua	Hondarribiko hondartzan	Apirilean CDN Bidasoa XXI 943 63 02 11
Txangoak, jokoak, eskulanak, marrazkia	2 +	Uztaila/Abuztua	Irun	<a href="http://www.kontigoservicios.com">www.kontigoservicios.com</a> 943 57 20 05
Eskaintza gehiago	6-12	Uztaila/abuztua	Irun	Gazte Informazio 943 50 52 40
IKASTAROAK				
Informatikako ludoteka	8-11	Uztaila	Irun	Aldaco 943 660144
Buztina, marrazkia, tailerrak, bisita gidat.	7 +	Uztaila-abuztua	Irun	Juncal Alfonso 675 71 74 07
Internet	16 +	Uztaila-iraila	Pio XII plaza	<a href="http://www.kzgunea.net">www.kzgunea.net</a>
Bonsaiak	10-15	Uztaila-abuztua	Irun	<a href="http://www.irunbonsai.com">www.irunbonsai.com</a>
Ingelesa (ekintza ludikoak)	3-12	Uztaila (goizez)	La Salle	943 46 93 73 Maiatzaren 15etik
Ingelesa	6 +	Uztaila-abuztua	Irun	<a href="mailto:academia@lacunza.com">academia@lacunza.com</a> Apiriletik aurrera
Jarduera pedagogikoak	Haur eta gazteak	Uztaila-abuztua	Oiasso museoa	<a href="http://www.oiasso.com">www.oiasso.com</a>
Zeramika	5-17	Uztaila-abuztua	Irun	<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>
Marrazki eta pintura	10 +	Uztaila	Anaka	<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>
Trikitixa eta panderoa	5 +	Uztaila	Irun	943 61 88 39
AUZOLANDEGIAK				
Auzolandegiak	18-30	Uztaila-abuztua	Hainbat leku	<a href="http://www.irun.org/igazte">www.irun.org/igazte</a>
Euskal Kooperanteak	20-31	Uzt.-abuz-iraila	Amer.-Asia-Afri.	<a href="http://www.irun.org/igazte">www.irun.org/igazte</a>

# Zein balioetan hezi gure haurrak?

Nola hezi balio positibotan balio konpetitibo eta balio fisikoei hainbesteko garrantzia ematen dien gizarte moderno honetan? Gaian sakontzeko zenbait puntu argitzeari ekingo diogu.



## **Pertsonok elkar errespetatu behar dugula dago denon ahotan, baina zer da errespetua?**

Denen ahotan dagoen balioa da errespetua; baina balio horretaz mintzo garenean gogoeta garrantzitsu bat egin behar dugula uste dut. Nola ikasten da errespetua izaten? Beldurrak errespetua bideratzen du?

Errespetuz jokatzen ikasteko, bi bide argi daude:

### **1. Beldurrak errespetua bideratzen du.**

Adibide dugu, zalantzarik gabe, duela 20 urte disziplinan oinarritutako hezkuntza. Zenbat ikaslek ez zuten irakaslearen esanak betetzen haren zigorren

beldur zirelako? Eta gaur egun ez al da oraindik, errespetuaren izenean, jaso litezkeen zigorren beldurrarengatik errespetua bideratzen? Duela gutxi haur batek esan zidan etxeko lanak egin behar zirela puntu gorriak ez izateko. Hiru puntu gorriekin etxera notatxoak bidaltzen zela eta zigorra jasotzen zuela. Hori al da autonomia eta ardura bideratzeko bidea?

### **2. Enpatiak bideratzen du beldurra oinarri ez duen errespetua. Zergatik ez dugu jo behar? Zigorren beldur garelako? EZ! Bestearen lekuan ipini eta besteak sentituko duen minaz ohartuta pertsona hori errespetatzen dugulako. Ez dugu**

egin behar guri egitea gustatuko ez litzazigukeena. Zergatik errespetatu behar ditugu elbarrituen aparkalekuak, adibidez? Isuna ipiniko digutelako? EZ! Pentsatu behar dugu zer nolako kaltea egingo diogun ibili ezin duen pertsonari etxera iritsi eta lekurik ez duenean.

Bestalde, errespetuaz ikasteko, errespetatuak sentitu behar dugu, eta zigorrak ez dira errespetuarekin uztartzen. Gaizki egiten dugunean, ondorioa hausnartuz ardura hartu eta konpontzeko aukera izan behar genuke, hori da hain zuzen errespetatua izatea.

Errespetatua sentitzeko, haur eta gazteek leku garrantzitsu bat izan behar dute familian edo eskolan, beren emozioak, gogoeak edo sentimenduak konfiantza osoz adierazteko. Helduek segurtasuna eskaini behar dute haur edo gazteek beharra dutenean hitz egin dezaten eta entzunak izan daitezten, harreman segurua eraikiko badiuzte.

### **Nor da eredu balioen transmisioan?**

Balioak ezin dira irakatsi, elkarrekin ikasten dira. Balio positiboetan hez dezakegu eta hitzak lagungarri izan daitezke; baina helduak eredu gara, eta gure haur eta gazteek (hein handi batean) guk egiten duguna errepikatzen dute.

- ✓ Laguntzen ikusten bagaituzte, laguntzen ikasiko dute.
- ✓ Geure ideiekin bat datorren zerbaitengatik borrokatzen edo solidarioak izaten bagara, solidarioak izango dira.
- ✓ Gaizki egina onartu eta barkamena eskatzen badugu, benetako barkamena bideratzen ikasiko dute.



✓ Gauza txikiekin disfrutatzen eta beharrezkoak ez diren gauzak erosten ez baditugu, ez dira hain materialistak izango.

✓ Maitatzen baditugu, kondiziorik gabeko maitasuna eskaintzen badiegu, maitatzen ikasiko dute.

Gaur egungo hezkuntza sistemak eta familian bizi dugun estresak ez dute errespetu enpatikoan hezteko erraztasunik ematen; baina dugun tarte txikietan saiatzea merezi du, ezta? Beharbada haurtzaroan eta nerabezaroan ez ditugu emaitzak ikusiko; baina pertsona solidario, zoriontsu eta justuagoak egiteko bidea da. Beharbada, agian... politikopoliki mundua aldatuz joango da gizartearen balio-ereduak aldatuko direlarik. Zoriontsu bizi!

**KUTTUN AHOLKULARITZA  
PSIKOPEDAGOGIKOA.**

[kuttun@kuttun.net](mailto:kuttun@kuttun.net)

Martxoak 21 dauka egun –izan zuen, irakurle–. Udaberria heldu zaigu. Idatziko dudanak ez du urtaroekin deus ikusirik, ordea, joandako pertsonekin baizik. Efemerideetara jo dut oharkabeen.

## Gogoratu nahi d(it)ut

Udaberria iritsi da eta joandako pertsonak, irundarrak berauek –izatez edo nahimenez–, gogoratu nahi ditut. Joan doazen –balizko beste mundura– lagunek triste uzten gaituzte partitzean, baina neronek pozteko idatzi eta oroitu nahi ditut haiek. Alaitasuna dakar-eta udaberriak.

Joandako azkena Patxi Zapiain izan da, martxoan. Urtarrilean, berriz, Gregorio Arzak joan zen. Orain hainbat urte jada, Julen

Lekuona joan zen: 2003ko uztailen. Lehenengo bien partitzearen berri prentsaren bidez jakin nuen. Aitortu beharra daukat, ez nintzen hurbildu euren elizkizunetara eta agurrera.

Biak izan ditut gogoan. Patxi eta Gregorio ez ezik, Julen ere bai. Gorazarre egin nahi diet orain eta hemen. Eta bidenabar, gutxi-asko ezagutu ditudan lehen bien seme Markos eta Joni, baita Jonen amari, Maria Luisa Rekalderi, besarkada bana igorri.

Hamalau urte inguru dira Irunera iritsi nintzela, Hendaiaitik Irunera iritsi ere –nondik nora zehaztu aldera–. Izan ere, aurretik beste hainbeste urte bizi bainituen Santiago edo Pausuko zubiak ezin iraganik. Bide berriak urratu beharrez, *Irunero* ezagutu nuen lehenik, eta bidez bide Irungo *Elkarri* ezagutu ere. Besteak beste.

Julen, Gregorio eta Patxi ekimen hartan ezagutu nituen: *Elkarrin*. Agenda zaharrak arakatu ditut, baina ez ditut aurkitu *Elkarri* osatu zuten beste laguneren izenak. Buruz ari naiz: Jon Arzak zegoen, Enrique eta Martin heldu zaizkit gogora. Borrokan



ari naiz memoriarekin: irakasle den Urkijo gogoratu zait; aldiz, irakasle emakumezko baten izena ahantzi dut. Bazegoen ere, Julen, Gregorio eta Patxiren belaunaldiko bat, 1936ko gudaria, txapela janzten zuen abertzale kartsua.

Gogoratu nahi dut, ez ahanzteko. Gogoratu Julen, Gregorio eta Patxirekin –gainerako guztiekin batera– ekiteak asko irakatsi zidala. *Elkarri* ekin

genion. Egungo garaiaik zailak badira, ordukoak ez ziren errazagoak. Ordukoak esperantzazkoak ziren, esperantzak lotzen gintuen lan isil eta xumean.

Kritika latzak jasotzen genituen, gatazkaren muturretatik gehienetan. Kritika latzenak, batzuetan laidoak, hurbileko muturrekoengandik jaso ere, “etxe”en aldetik, alegia. Horiek izaten dira mingarrienak. Garai hauetan, berriz, latzak –eta esperantzazko– garaiaik hauek ere, Julen, Gregorio eta Patxiren begietan –eta ekintzetan– ageri ohi zen esperantzazko distira gogoratzen dut. Geroago, *Elkarri* haren eskutik *Lokarri* sortu zela gogoratu nahi dut. Eta gogoratu nahi dut ere, muturreko haiek, “etxeok”, *Lokarri*ren eskutik Sortu(ko) dela.

Julen, Gregorio eta Patxiren esperantza bizirik atxiki nahi dut. Joan diren guztien gorazarrez, eta herri honi zor zaion duintasunetz ekinenez. “Ezina ekinenez –egina–, elkarri ekinenez –sortua–”.

**MIKEL ASURMENDI**



Azken 40 urteotako oroitzapen autobiografiko-sentimentalak irakurgai dituzu kronika-kontakizun honetan. Lehen edo azken belau-naldikoa izan, ziur izan interesgarria antzemanen duzula.

## *Gaitz larria* azukre xeheaz atondua

**P**aragrafoa oso sendoa atera zait sarrerakoa, ukaldi batez. Aro baten amaiera adierazten du liburua. Alta bada, ez naiz ziur Hernandez Abaitua idazleak kontatu dituen oroitzapenak jende guztiarentzat erakargarriak direnontz. Bigarren paragrafo hau nire sentikizuna baino ez da, noski. Frankismoaren amaieraz geroztik gure jendartean bizi izandako gertakariak ez dira samurrak izan. Oraindik ere “kaperen” arteko ezinikusi handiak sumatzen dira gure artean. Hirugarren hau ere, sentipen ezkorraz gainera subjektiboa da, bistan da. Oroitzapen autobiografiko sentimentalak biltzen dituen liburu honek adiskidetasuna, musika, literatura eta politika gaiak ditu oinarri.

Egilearen bizitzan musika berebiziko espresioa den aldetik, liburuak egungo euskal musikaren zenbait arrasto eskaini dio irakurleari, baita herri honek arlo horretan bizitako hainbat tabu eta konplexu ezagutzeko parada ere. Literatura eta politika espresioak bitasun batean heldu zaizkit burura. Belaunaldiz belaunaldi, politika eta literatura trenbide bateko bi errailak bailiran eraman nau bidaia-liburu honek. Alabaina, oro har, euskal politika –euskal gatazka– euskal literaturan modu deserosoz landu izanaren inpresioa jaso dut. Adiskidetasuna



**Liburua:** *Azukre xehea gatz larria*

**Egilea:** Mikel Hernandez

**Abaitua**

**Argitaletxea:** Alberdania

geratu zait azken paragrafo honetan aipagai. Liburuko gai edo jardun bakoitza bereizi beharrekoak badira ere, adiskidetasuna beste hiruretatik bereziko nuke bereziki.

Liburuaren egilearen nahie-ran –sentipena dut batzuek inozotzat hartzen dituztela liburu mota hauek– ETaren ondorengo adiskidetze garaia etortzea nahi nuke nik ere. Iraganeko errealitatea guztiz zuzena ekartzea ezinezkoa da, baina saiatzeak merezi du, eta lan honen bertutea oroitzapenari eustea da. Norberak bizitakoa kronika-kontakizun modu honetan ekartzea eta gure gatazkak liburuko espirituaren ildoan urratzea osasungarria da.

“Gatazka ez da desagertuko, gatazka ez bukatzeko eskubidea dago, baina izan dadila gatazka politikoagoa” dantzut egilearen hitzetan. Sukalde lanetan jarrita, iragan historia berria gogoan, “*gaitz larria azukre xeheaz*” gozatu du egileak. Ez da gutxi, “gure politika” desitxuratua euskal letren eta musikaren oroitzapenez –eta bizipenez– atontzea.

**MIKEL ASURMENDI**

# k u l t u r a g e n d a

## Apirilak 1-Maiatzak 1



- Amaia KZn Gabriel Braun argazki erakusketa.  
Izenburua: *Luces de África*.

## Apirilak 19-Maiatzak 1

- Euskadiko Kutxako aretoan, Beatriz Adelman Paganoren pintura erakusketa.

## Apirilak 29

- Amaia KZn 19:30ean, hitzaldia: Jose Maria Pedreño, Oroimenaren aldeko Foroan Federazioko presidentea.

## Apirilak 29

- Dantzaren Mundu Eguna. Egun guztian zehar, hainbat ekitaldi Zabaltza plazan. 21:30etik aurrera, ZL disko-tekan, jaia.

## Maiatzak 1

- Ficoban, Gipuzkoako Nazioarteko Txakur Erakusketa.



## Maiatzak 7-8

- Ficoban, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Erakusketa.

## Maiatzak 11

- Amaia KZn, 9:30etik 11:00etara, Ametsa Haur Abesbatzak kontzertu pedagogikoa eskainiko du.


## Maiatzak 13-15



- Oiasso Museoa Tarraco Viva-ra (Tarragona) bidaia antolatu du. Erromatar munduari eskainitako historia-errekreazioko azokarik handiena da.

[www.oiasso.com](http://www.oiasso.com)

## Chillida-Gal



- **Uztailaren 3ra arte**, Eduardo Chillidaren eta Menchu Galen erakusketa, Menchu Gal Erakusketa Gelan (Urdanibia plazan). Artista donostiarraren 20 obra grafiko eta pintore irundarraren 17 marrazki ikusgai: hain zuzen, bion alderdirik ezezagunena.

### Ordutegia:

Ostiral eta larunbatean: 18:00etatik 21:00etara.  
Igandeetan: 11:30etik 13:30era

## San Markos

- Apirilaren 25ean, San Markos eguna, Meakan, 17:00etatik aurrera, haurrentzako jokoak eta animazio talde baten emanaldia.

## Liburutegiko jarduerak

### LIBURU FORUMA

**Apirilaren 18an,**  
19:00etan, Karla  
Suarez-en *Silencios*.

### IRAKURKETA

**KLUBA Apirilaren  
19an,** 19:00etan,  
Virginia Woolf-en  
*Mrs. Dalloway*.

**Apirilaren 26an,**  
11:00etan, KAMIS-  
HIBAI (4-6 urte).  
Sarrera doan.



## Prehistoric erakusketa



### Apirilaren 16tik 25era FICOBAN


Zatoz Historiaurrearen  
bihotzera!

Prehistoric Tour atzera begi-  
rako lehenengo erakusketa  
garrantzitsua da  
Neanderthal Gizakiaren  
kulturari buruz.

Abentura liluragarria fami-  
lia osoarentzat,  
Neanderthal Gizakiei  
buruzko ikerketen emaitzak  
modu ludiko eta pedagogi-  
koan aurkezten baitira.

## Pieza berriak Oiasso Museoan

Oiasso Museoak 80  
pieza berri ikusgai ditu.  
Amuak, lastak, oinetako-  
en zolak, orraziak, eraz-  
tunak kriseiluak...  
Irekita asteartetik  
igandera.



## Antzerkia euskaraz

- **Apirilaren 30ean,** Amaia KZn, 17:00etan, Poxpolo ta konpainia pailazoek *Segi jotzen!* ikuskizuna eskainiko dute.

Ikuskizun berriak, pasadizo xelebreak eta egoera barregarriak ditu ardatz. Oraingo honetan, Poxpolo gure pailazoak lagun berrien bisita jasoko du, aspaldiko lagunak ahaztu gabe. Majia, kolorea, lilura, sentimenduak, abesti berriak eta barre-algarak.



**Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.**

## Lehiaketak



- **SAN MARTZIAL JAIETAKO KARTELA** aukeratzeko lehiaketa. Sariak: irabazleak 1.000 euro eskuratuko ditu. 250 euroko akzesit bat emango da. Epea: Apirilak 28.

- **BIDASOAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDI** Arkeologikoa. Lanak aurkezteko epea: Maiatzak 31.



- **LEIOAKO UDALAK** *Ni gaztea nintzenean* Narrazio Lehiaketa antolatu du. Adinaren araberrako kate-

goria zenbait. Epea: apirilak 28.

## Hezkuntza



- **ASTIALDIKO BEGIRALE** ikastaro trinkoa Gasteizen. Noiz: Ekainaren 27tik uztailearen 31ra. Izena emateko epea: Ekainak 17. Informazioa: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)

- **UDA IKASTAROAK-EUROPAR IKASTAROAK.** Beka eskariak: Apirilaren 19a baino lehen. Matrikula eskaria: Maiatzaren 2tik 31ra.

## Udatxo

Gazteei zuzendutako jarduera guztiak klik batean!!

[www.irun.org/igazte/udatxoko](http://www.irun.org/igazte/udatxoko)

## Auzolandegia eta lankidetzak



- **2011KO AUZOLANDEGIETAN** parte hartzeko izena eman ahal izango da maiatzaren 4tik aurrera.

- **EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA.** Epea: Apirilak 20.

Helburua: Gazteen artean elkartasunaren balioa sendotzea eta garapenerako ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea. Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerikan, Asian eta Afrikan, hain zuzen ere.

## Gazte-Txartelak 6 INTERRAIL txartel zorkeztatuko ditu

Orain Gazte-txartelarekin, Interrail esperientzia bat irabaz dezakezu eta Europan zehar izan dituzuen pasadizoak kontatu! Epea: Maiatzak 8.



## Aurreko eguneko pilula

Nahi ez diren haurdunaldiak eta sexuaren bidezko gaixotasunak murrizten laguntzen du.



## **LA IMAGEN DEL DIA**

Gipuzkoa TB Txingudiren  
tarte berria

Bidaliezaguzu argazki bat:  
paisaiak, ekintzak, salaketak...  
**Egunero bat aukeratuko dugu.**





# PROGRAMAZIOA

## 2011

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
7:00- 7:30	Txingudi Gaur laburpena (Errep.)	Txingudi Gaur (Errepikap.)			
8:30-9:00	Txingudi Gaur laburpena (Errep.)	Txingudiko Gaur (Errepikap.)			
9:00-9:30	El Gran Festini (Errep.)	Gipuzkoaldia (Errep.)	Abierto al público gastronomía (Errep.)	Gipuzkoa viajera (Errep.)	Tu economía (Errep.)
12:00-12:30	Carta y Cata (Errep.)	Tiempo Real	30 minutos (Errep.)	Gipuzkoa Gaur (Errep.)	Gipuzkoa Gaur (Errep.)
12:30-13:30	La hora de Boni (Errep.)	Tiempo Real (Errep.)12-13:30	30 minutos +1 (Errep.) Tu Economía	La hora de Boni (Errep.)	Grada Cero 12:30-14:00 (Errep.)
20:30-21:00	Ven de viaje 54	Abierto al público gastronomía	Politika Irun	Politika Hondarribia	Abierto al público gastronomía
21:00-21:30	Txingudi Gaur				Asteko berrien laburpena
21:30-23:00	La Banatua (Real Union)	Euskadi Prime Time			Zinea
23:00	El Gran Festini (Erp)	30 minutos	Hablando Claro	Kirolan	Micrófono abierto
23:30	Carta y Cata (Errep)	30 minutos+1		Micrófono abierto	Hablanco claro
00:00	Txingudi Gaur (Errep.)		Politika Irun	Politika Hondarribia	
00:30	La Banatua (Real Union)	Euskadi Prime Time			Zinea

	Larunbata	Igandea
11:30-13:00	La Banatua	Tu economía
		Hablando claro
15:00-15:30	Kirolan	Micrófono abierto
15:30-16:00	Micrófono abierto	Kirolan
20:00	Hablando claro	Kirolan
		Micrófono abierto
21:00-30	Politika Irun	Politika Hondarribia



## BIZIKLETAK FABRIKAKO PREZIOAN

## BICICLETAS A PRECIO DE FÁBRICA



✓ **KARBONOKOETAN ESPEZIALISTAK**  
*Especialistas en carbono*

✓ **MOTA ETA PREZIO GUZTIETAKOAK**  
*Todo tipo de bicicletas*

✓ **MERKATUKO PREZIO/KALITATE OREKARIK ONENA**  
*La mejor relación calidad/precio del mercado*

✓ **KONPONKETAK 24 ORDUTAN**  
*Reparaciones en 24 horas.*

✓ **TXIRRINDULARIARENTZAT OSAGARRIAK**  
*Complementos del ciclista*



**Juan Thalamas, 33 (Fosforera). IRUN 943 332133**

[www.gokacenter.com](http://www.gokacenter.com) [gokacenter@gmail.com](mailto:gokacenter@gmail.com)



**Biltegi eta bulegoak:**  
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

**Dendak:**  
San Francisco, 15 - 20002 Donostia  
San Francisco, 24 - 20002 Donostia  
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia  
Isabel II, 15 - 20011 Donostia  
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria  
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain  
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara  
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**  
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea  
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48  
20304 Irun



**- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**  
**- Lanpara erakusketa.**